

SORGIÑAK

SORGIN-KUME BAT ZELAN SORGIN BENE-TAKOA EGITEN DAN.—Lau juez edo epailleen aurrean, 1.610 urtean, sorgin batek kontau eban argi ta garbi pertsona bat zelan sorgin egiten zan. Emen bere berbak ipiñiko dautzuedaz.

* * *

SORGIN-AMA ETA SORGIN-KUMEA.—«Sorgin izan gura dauan sorgin-kume batek, Sorgin-ama batengana joan bear dau, eta onek lapikotxo batean daukan unkontuz, eskuak, bularrak, burua eta oiñak bustiko deutzoz eta biak egaz Akelarrera joango dira, arin eta pozik.

* * *

AKELARREKO DEABRUA. — Akelarren beste sorgiñak batzarrean egongo dira, Aker Baltza —Deabrua— erdian dagoelarik.

Deabrua, aker baltzen itxuran, aulki baten jarrita egoten da, buruan adar txikiz egindako koroi bat dauala.

Alako adar bi ez dira txikiak, akerraren antzeko adar oker luzeak baiño.

Adar luze oneik puntetan argi bana dauke, eta argi oneik Akelarre guztia argitzen dabe.

Argi ori illargiarena baiño argiakoa da, baiña eguzkiarena baiño illunagoa.

Akerrak begiak borobillak ditu, andiak eta suzkoak. Bizarra auntzaren antzekoa. Gorputz erdia akerrarena eta beste erdia gizonaren antzekoa.

* * *

AKERRAREN AURREAN. — Sorgin-amak bere sorgin kumea akerraren aurrera eroan eta esaten deutso: «Jauna, emen dakart zuretzat sorgin-kume au». Akerra orduan sermoi luze bat esaten asten da.

Akerraren abotsa garratza eta astoaren arrantzaren antzekoa da, baiña arrokeriz betea.

Akerrak beti umore txarreko arpegia erakusten dau.

* * *

AKERRAREN SERMOIA. — Akerrak orduan sorgin-kumeari esaten deutso.

Nire ikasle eta jarraitzale ona izan gura badozu, leenengo eta bein betiko Jaungoikoa eta. Andra Maria eta Zeruko Santu guztiak ukatu, ernegatu egin bear dituzu. Neu bakarrik naz zure Jaun eta Jaungoikoa.

Neu bakarrik adoratu, gurtu bear nauzu.

Au egiten badozu zerua baiño gauza ederragoak emongo dautzudaz: gorputzeko atsegiñak eta gura dituzun gusto guztiak.

* * *

AKERRA GURTUTZEA.—Sorgin-kumeak akerrak esandako gauza guztiak egiten dituenan, akerrak eskerreko anka luzatu eta sorgin-kumeari gorputzean marka bat egiten deutso.

Marka au bizitza guztian ezin kendu daiteke.

Gero Akerrak sapo bat, jantsi ederrez jantzita, emoten deutso sorgin-kumeari, esanaz: «Au izango da emendik aurrera zure aingeru guardakoa».

* * *

AKELARREKO JAIK. — Gero txistu eta danbolin soñuan sorgin guztiak jai egiten dabe su andi baten inguruan bira-biraka.

Gau osoa saltoka eta irrintzika emoten dabe sorgin barriaren omenez.

Aker Baltza bien bitartean begira egoten da, barreka eta siñu txarrak egiten, lotsagarriko eran)).

GOIKOETXEA TAR IÑAKIK

MARGOLARIAREN EMAYA

*Geure lurra maite dauan margolariak
Lauki bat emon daust: itxaso aserrek
Bitzaz betetzen dauz Galea'ko atxak
Maldatik igon gure, baiña jausi.*

*So egin dot luzaro: Ondar zabala
Neguan agertzen da lagun gabe.
Batel ondaturiko olak, burdiñak,
Ezker aldeko ondarra, betetzen dabe.*

* * *

*Zer esan gure daust margolariak?
Laukiak ete-dau gomutarazo-barri?*

*Gu bere, ludi onetan, urte askotan,
Guda gogorra izanda, batelen antzez,
Itxaso ertzara ekarri azur makurrak
Ildegira begira. Gero arte...*

* * *

*Au da ikuspen ituna? Ez orixe.
Aitagana juatia. Ezpetxea ausi!
Zeru ertzeko kayan inguratuta
Ziñezmendunak bizi alai ta azke.*

UTARSUS